

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BERANTEVILLAKO UDALA

#### Jarduera ekonomikoen gaineko zerga, 2020koa, ordaintzeko epea irekitzea

Jendaurrean jartzen da ireki dela jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2020ko ordaintzeko egiteko aldia.

##### I. ORDAINTZEKO EPEA

A) Borondatezko aldia: 2020ko urriaren 19tik abenduaren 19ra.

Udala arduratuko da helbideratutako ordainagiriak kobratzeaz, eta hori 2020ko azaroaren 9an egingo du.

B) Betearazte aldia: Jakinarazten da ezen, borondatezko aldian sarrera egiteko epea amitu eta ordaindu ez bada, zorrak premiamendu bidez eskatuko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan eta uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuak 70. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoaren arabera, sortzen diren errekargu eta berandutze interesekin.

##### II. ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

A) Bankuetan helbideratutako ordaintzak:

Ordaintzeta aurreko urteetatik helbideratuta daukatenez ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordaintzeta.

B) Helbideratu gabeko ordaintzak:

Ordaintzeta helbideratuta ez dutenez borondatezko aldian baino ezin izango dute ordaindu, Kutxabanken eta banku transferentzia bidez. Horretarako, aldezturik, ordainagiria jaso beharko dute udaletxean, 09:00etatik 14:00etara.

COVID-19aren hedatzea saihesteko hartutako segurtasun neurriak direla eta, hitzordua eskatu beharko da aldezturik, 945337059 telefonora deituta edo [aberantevilla.secretaria@ayto.araba.eus](mailto:aberantevilla.secretaria@ayto.araba.eus) posta elektronikora idatzita.

##### III. GOMENDIOAK

Bankuko helbideratzean altarik edo aldaketarik egon bada, Berantevillako Udalarari horren berri eman behar zaio; baita interesduna etxebizitzaz aldatu bada ere, hurrengo jakinarazpenak egin ahal izateko.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Berantevilla, 2020ko irailaren 7a

*Alkatea*

*MARIO PEREA ANUNCIBAY*